

XXVI DEIALDIA

TEKNOLOGI IKERKETAN PRESTATZEKO BEKAK

DEIALDIAREN OINARRIAK

Onuradunak

Bekak **Goi-mailako Unibertsitate Tituludunentzat** dira, zientzi eta teknologi ezaupide espezifikoak lortu nahi badituzte kalitate edo ospe frogatua duten Ikerketa Unitateetan (publiko nahiz pribatuetan) egonaldiak eginez.

Ingeniaritzako ikasleek ere eskura ditzakete laguntza hauek, titulua lortzeko Ikasketa Bukaerako Proiektua bakarrik falta baldin bazaie.

Beken diru-kopurua

**Beka bakoitzaren diru-kopuru gordina 1.002,00 €koa izango da hilean.**

Istripu Asegurua ere sartuta dago bekan.

Beka hau ez da bateragarria beste beka edo lansari batzuk hartzearekin.

Bekaren garapena

Laguntza hauen iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebetez luza daitekeelarik.

Bekadunek 2005ko urriaren 20an sartu beharko dute bekaren xede den prestakuntza hartzeko Zentrora.

Bekaduna 2005ko urriaren 20a baino geroago hasten bada lanean, igarotzen dituen hilabeteen araberakoa izango da diru-kopurua.

Bekaduna zeinahi egunetan hasten dela ere ikertegian, laguntzari dagokion epea 2006eko urriaren 19an emango da bukatutzat.

Iñaki Goenaga - Teknologia Ikertegien Fundazioak bekadunak egindako ekintza edo jardueri buruzko iritzia eskatuko dio Zentroari. Datu hau eta dagokion proiektuaren egoera funtsezkoak izango dira Beka berritu ala ez erabakitzeko.

Beka hauetakoren bat lortzeak aukera eman dezake geroago Ikertegian bertan doktoretza egiteko diru-laguntzetarako deialdian sartzeko.

## Beken izaera

Laguntza hauek ez dute inolako lan-harremanik sortuko bekadunaren eta Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegien Fundazioaren edo bekaduna hartzen duen Ikertegiaren artean, eta Ikertegiak ez du inolako konpromisorik hartzen gero bekadun hori bere langileen artean sartzeko.

## Beka eskuratzeko baldintzak

Bekaduna programa zertuko duen Ikertegian sartzen denean hasiko da beka eskuratzen ere; programa burutzerako konprometituko da bekaduna eta Ikertegiko arauak betetzera une oro, probetxu ona izan dezan beharrezko diren jarrera eta interesarekin.

Beka bateraezina da ordaindutako edozein lanekin.

Bekarako baldintzak betetzen ez badira, Fundazioak eskubidea izango du emandako diru-kopuruen itzultzea eskatzeko.

Prestakuntza Ikertegiko departamentu-buruek zuzenduko dute, dagokion departamentuko zereginetan parte hartuko duelarik bekadunak. Hala ere, Fundazioak beti izango du ahalmena bekadunaren jardueraz kontrol orokorra egiteko.

Fundazioak eskubidea izango du, urteko edozein unetan, bekaduna egiten ari denaz txostena eskatzeko bekadunari berari edo Ikertegiari. Txosten hori bekadunak ez badu aurkezten edota aurkeztutakoaz Fundazioak balioespen negatiboa egiten badu, laguntza eten egin daiteke berehala. Erabaki honek motibatua beharko du izan.

Beka betiko edota aldi baterako eteteko zio edo motiboak honako hauek izan daitezke:

- Bekaren prestakuntza-helburuak lortzeko ezintasuna.
- Bekari probetxurik ez ateratzea.
- Diziplinarik eza.
- Bekadunaren esku jarritako ekipo eta materialak behar bezala ez erabiltzea.
- Ikertegiko barne-arauekiko begirunerik eza.
- Isilpeko informazioa argitara ematea.

Bekadunek ondorengo eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

- Bekaren ondorioz, deialdiaren oinarrietan ezarritako diru-kopurua hartuko dute.
- Istripu-asegurua izango dute.
- Bekaren edukiarekiko prestakuntza gehigarria hartzeko aukera izango dute, dagokien Ikertegiko arauen arabera.
- Fundazioaren Idazkaritza Teknikoa bekadunen esanetara izango da beti, eskatzen diotenari erantzuteko.
- Beka garatzen ari diren Ikertegiko barne-araudia bete beharko dute.
- Bekadunari dagozkio, bere ekarpenaren arabera, ikerketan prestatzeko egiten duen lanaren jabetza intelektualaren eskubideak, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bat-eginak, apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileaz onartuak, ezartzen duenaren arabera. Eskubide horiek apartekoak dira, bateragarrik eta metagarriak egindako ikerlanaren ondoriozko beste eskubide

batzuekin, eta bekaduna parte hartzen ari bada edo atxikirik badago taldeko ikerlan bati, talde-lan horren ondoriozko baldintzapenen kalterik gabe.

- Beren ikergai edo aztergai buruz erabateko isiltasuna gorde beharko dute beka iraun bitartean eta bukatu ondoren, eta Ikertegiaren baimena, argi eta garbia, beharko dute egindakoa erabiltzeko edo/eta beste batzuei ezagutarazteko.
- Beka bukatzean, beren lan-egoeraren berri eman beharko diote Fundazioari.

Ikerketa-lan horren ondorioz inolako argitalpenik egingo balitz, Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegen Fundazioa aipatu behar da bertan, eta argitalpen horren ale bat Erakunde horretara bidaliko da.

Bekadunak egindakoaz Diploma emango dio Fundazioak bekaren helburua oso-osorik betetzen duenari.

## Bekak eskatzea

### Bekak eskatzeko baldintzak

Beka eskatzeko ez da beharrezkoa gaindituta izatea titulua eskuratzeko beharrezko ikasgai guztiak. Baina beka ematen bada, bekadunak gaindituta izan beharko ditu titulua eskuratzeko beharrezko ikasgai guztiak (Ingeniaritzen kasuan, Ikasketa Bukaerako Proiektua izan ezik) Ikertegian sartu behar duen egunerako.

### Eskaerak aurkeztea

Beka-eskaerak 2005ko uztailaren 1etik uztailaren 29era aurkeztu behar dira.

Eskaerak Fundazioaren web orrian ([www.fundacioncentrostecnologicos.org](http://www.fundacioncentrostecnologicos.org)) dagoen Eskaera Formularioaren bidez bideratu behar dira, hantxe daudelarik behar diren argibide guztiak formularioa behar bezala betetzeko.

### Aukeraketa

Fundazioak Epaimahai Kalifikatzailea izendatuko du Bekak emateko.

Eskaeren balioestea ondorengo irizpideon arabera egingo da:

- Espediente akademikoa
- Titulazio berria
- Hizkuntzak jakitea
- Eskatzaileak aurkezten duen beste edozein meritua: ikasketa-bukaerako proiektuaren gaia, egindako lan teknikoak, ikasketak, etab.
- Bakoitzarekin egingo den elkarrizketa.

Aukeraketa-prozesuaren lehenengo fasea Fundazioaren web orriaren bidez eskatzaileak ematen duen informazioaren arabera soilik egingo da. Geroago, emandako informazio hori guztia egiaztatzea egin beharko du agiri bidez.

Aukeraketa-prozesuaren barruan, Epaimahaiarekin aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko da, nahitaezko betebeharrak gisa.

Bekaren bat esleitu gabe geratzen bada, edota deitutako beketan aldaketak gertatzen badira, komenigarri iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko eskubidea izango du Fundazioak, betiere deialdi honi dagokion espirituaren barruan.

Atzerriko titulazioek Estatuko titulazioekin duten baliokidetasuna Fundazioak balioetsiko du.

Beka eskatze hutsak esan nahi du onartzen direla Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegien Fundazioaren oinarri hauek, beronek erabakiko dituelarik sortzen diren gorabeherak.

### **INFORMAZIOA:**

- Iñaki Goenaga Teknologi Ikertegien Fundazioan (Tel. 94 420 94 88)
- Ondorengo web orrian: ([www.fundacioncentrostecnologicos.org](http://www.fundacioncentrostecnologicos.org))